

# bai

aldizkaria


Bai Euskarari Elkartearen aldizkaria | 42 zk | 2026ko ekaina

**bai**  
euskarari  
elkartea

LAN ETA BIZI  
EUSKARAZ

## mendiak eta herriak

# 26



PUNTU  
•EUS

eusko

## ***Mendi gailurretik Itsas bazterrera***

**#baieuskararisariak2026**





Beatriz Tomas  
Bai Euskarari Elkarte Administrazioa

## 2026ko Bai Euskarari Sariak: Mendi gailurretik itsas bazterrera

Aurten beste mugarri bat ospatzen dugu gure ibilbidean. Urteek aurrera egin ahala, Bai Euskarari elkarte ez da soilik proiektu bat izan: komunitate sendo bat eraiki dugu, balio partekatuetan oinarritua eta euskararen aldeko konpromisoak gidatua. Gure eguneroko lanak arrasto positiboa utzi du ingurunean, eta aurten ere bide horretan sakontzen jarraitu nahi dugu.

Horregatik, urteko une bereziene-tako bat dira Bai Euskarari Sariak. Aurtengo edizioari nortasun berezia eman diogu, eta leloak berak —*Mendi gailurretik itsas bazterrera*— ederki irudikatzen du ospatu nahi dugun hori: euskarak egiten duen bidaia zabala, gure lurraldearen eta gure komunitatearen aniztasuna zeharkatzen duena.

Hiru eragilek jaso dute aurtengo saria, bakoitzak bere esparrutik euskararen alde egindako ekarpenagatik:

**Mendiak eta Herriak** elkarteak urte luzez euskararen eta mendiko kulturaren arteko lotura sendotu du, herriak eta gailurrak elkartuz, eta komunitate oso bati euskaraz bizitzeko eta gozatzeko espazioak eskainiz. Haien lana aitzindaria da, eta beste askori bidea zabaltzen dien eredu.

**Euskal Monetak**, ekonomia sozial eraldatzailearen ikuspegitik, euskararen presentzia lan munduan txertatzeko modu berritzaileak garatu ditu. Euskara lan tresna eraginkorra eta komunitate ekonomiko baten nortasunaren parte bihurtu du.

**Puntueus Fundazioak** sarean euskarak duen presentzia eta ikusgarritasuna handitu ditu, eta etorkizuneko belaunaldiek euskarazko mundu digital oso bat izan dezaten oinarriak jarri ditu. Haien lana estrategikoa da, euskararen etorkizuna, neurri handi batean, pantailen bidez ere eraikitzen baita.

Aurtengo saridunek argi erakusten dute euskararen presentziak garrantzi handia duela; are gehiago, funtsezkoa dela gure komunitatearen kohesiorako, gure lan inguruneen eraldaketarako eta gure etorkizun digitalerako.

Eskerrik asko gure historiaren parte izateagatik. Ospatzen, lan egiten eta euskaraz amesten jarrai dezagun... elkarrekin eta taldean beti.

### AURKIBIDEA

<b>Elkarteko lantaldea</b>	<b>03</b>
<b>Mendiak eta Herriak</b>	<b>04</b>
<b>Euskal moneta</b>	<b>07</b>
<b>Puntueus</b>	<b>10</b>
<b>Komunitatearen txokoa</b>	<b>13</b>
<b>Elkarrengandik ikasiz</b>	<b>15</b>

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte  
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t.  
0524336196

Rogelia de Alvaro Elkarte Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t.  
945215196

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: Arteman

Argazkiak:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI  
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



## ELKARTEKO LANTALDEA BERRITU DA

# Kide berriak Bai Euskarari Elkartearen lantaldean

**BAI EUSKARARI ELKARTEAK HIRU KIDE BERRI DITU: MIRIAM AMUBIETA, IRATI ARRATIBEL ETA IÑAKI OLABARRIA. HIRURAK ARITUKO DIRA EBALUAZIO-AHOLKULARI LANETAN, LAN MUNDUAN EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO HELBURUAREKIN.**

Proiektuei dagokienez, hainbat egitasmo gidatuko dituzte euren artean. Irati eta Miriam elkarlanean arituko dira Elkarrengandik Ikasiz solasaldietan eta Zaintza Euskaraz esplorazio-ekimenean (Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna Eraikiz* programaren babesarekin garatzen ari da). Horrez gain, bakoitzak bere ardura espezifikoa ere izango ditu. Iratik Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateei arreta berezia eskaini eta haiek prestigiatzeko lan egingo du, egungo ziurtagiridunak preskriptore bihurtzeko hedapen-estrategia berriak finkatuz. Miriamek, berriz, euskaraz lan egiten duten entitateen sareak indartuko ditu Euskaragileak proiektuaren bidez.

Bestalde, Iñaki Gasteizko bulegotik arituko da lanean. Ebaluazioak egitearekin batera, Arabako proiektu estrategikoen ardura hartuko du, hala nola Lazarraga



Sariak eta Enpresen Foroa. Era berean, Iñaki Miriamekin elkarlanean ibiliko da Enpresarean enpresa eta profesionalen sarearen kudeaketan eta dinamizazioan.

Ilusioz eta gogoz ekin diote lanari, eta ziur gaude bultzada ederra emango diotela elkartearen egunerokoari.

Ongi etorri!



**HIREKIN  
HAMAIKA  
IKUSTEKO**

Euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortzen ditugu, euskal kultura partekatu eta hamaika istorio eta bizipen elkarrekin bizitzeko.

Zure ekarpenarekin, kalitatezko euskarazko proiektu komunikatiboa eraikitzen jarrai dezakegu.





**Egin zure ekarpena**  
[www.hamaika.eus/egjin-zure-ekarpena](http://www.hamaika.eus/egjin-zure-ekarpena)

**hamaika**  
Euskal komunitatea elkartzeko eta euskaraz bizitzeko.

## GARO AZKUE ETA FELIPE URIARTE MENDIAK ETA HERRIAK

# «Sokalaguna euskalduna baldin bada, euskaraz aritzeak etxean bezain ondo sentiaraziko zaitu»

MENDIAK ETA HERRIAK ELKARTEAK MENDE ERDIKO IBILBIDE OPAROA OSATU DU, MENDIZALETASUNA ETA EUSKARA MUNDUKO GAILURRIK ALTUENETARA ERAMANEZ. EUSKAL HERRIAN HASI ETA HIMALAIARAINO, MENDI GIDARI EUSKALDUN HAUEN HABITAT NATURALA ALTUERA DA. AURTEN, BAI EUSKARARI SARIA JASO DUTE, NATURAN ETA MENDIAN GURE HIZKUNTZA SUSTATZEKO EGINDAKO LAN ESKERGAREN AITORTZA GISA. MASIFIKAZIOAZ, MENDIKO SEGURTASUNAZ ETA EUSKARAREN ETORKIZUNAZ ARITU GARA GARO AZKUE ETA FELIPE URIARTE MENDI GIDARIEKIN.



**Zorionak Bai Euskarari Sariagatik. Zer esanahi du aitortza honek?**

**Garo Azkue:** Sari bat jasotzeak poz handia ematen du eta, gainera, 50. urteurrenean etorri da!

**Felipe Uriarte:** Bai Euskarari Elkartearen saria jasotzeak zorionsu egiten gaitu. Mendiak eta Herriak elkartearen izena ez da kasualitatea; mendien magaletan, herriak bizi dira, herrietan beraien hizkuntzak. Herriek bere arima galtzen dute hizkuntza galtzen dute. Sari honek mendizaleatasuna eta bidaiari ulertzen dugun bezala saritu egiten du.

**Ezagutzen ez zaituztenentzat, zein da zehazki zuen lana eta non garatzen duzue?**

**G.A.:** Elkarte bat gara. Jendeari mendian ibiltzen irakasten diogu, zailtasun

guztietako jardueretan. Euskal Herrian bertan hasi eta mundu osoan zehar.

**F.U.:** Mendi gidari euskaldunak gara, mendia da gure habitat naturala, eta lagunei mendi gailurretara igotzen eta etxera onik itzultzen laguntzen diegu. Gure mendi jarduerak Euskal Herrian, Auñamendietan, Alpeetan, Andeetan, Afrikako Atlas eta Kilimanjaron, Himalaian eta Karakorumen egiten ditugu. Mendi gidari eta bidaiariak gara.

**la mende erdi honetan, nola uzartu dituzue euskara eta mendia?**

**G.A.:** Orain arteko ibilbideak, mendiak bezala, aldapa gorak eta beheak izan ditu, baina beti gustura aritu gara. Euskara eta mendia uztartzeari dago-kionez, Oxigenoa Euskarari egitasmoa sortu genuen 2010ean. Orain, Arabako Lautadako 85 gaztek eta Mendial-

deako 18k hartzen dute parte; datuak oso esanguratsuak dira.

**F.U.:** Dagoeneko 16 urte gabiltza Oxigenoa Euskarari ekimenarekin, eta uste dugu oso eraginkorra dela euskara gazteen bizitzan errotzeko. Horren harira, 2018an *Oxigenoa Euskarari 6000 metroan* espedizioa antolatu genuen. Euskal Herriko 12 neska-mutil eta 9 xerpa gazte bildu, eta 24 eguneko espedizioa burutu genuen Everest inguruan. Esperimentu bat izan zen: *Egin daiteke euskaraz 6.000 metrotan?* Emaitzak emankorrak izan ziren: euskara eta xerpera hutsean bi mendi igo, ordubeteko dokumentala burutu eta Euskara-Xerpera hiztegi bati hasiera eman genion (aurten plazetan izatea espero dugu). Bestetik, 2020an Urmuga sortu genuen: Euskal Herria



zeharkatzen duen 19 eguneko ertzeko ibilbidean mendizaleatasuna eta musika uztartzen ditugu, euskara hutsean.

**Zein da euskararen osasuna gaur egun mendian eta komunikabide espezializatuetan?**

**G.A:** Euskal Herrian bizi garenok ez gara kopuru handia eta euskaraz hitz egiten dugunok are gutxiago. Hala ere, euskalduna oso mendizalea izan da

**"Mendien magaletan herriak bizi dira, herrietan beraien hizkuntzak. Herriek euren arima galtzen dute, hizkuntza galtzen dutenean."**

beti, eta ohikoa da oso urrunera joanda ere, "aiba, zuek ere euskaldunak?" aditzea.

**F.U:** Gizartearen beste multzoekin alderatuta, zertxobait hobexea dugula esango nuke, nahiz eta datu zehatzik ez dudan. Baina, prentsa espezializatuari begira, datu argiak daude, eta ez dira baikorrak. Euskal Herriko mendi aldizkarietan: *Pyrenaica*-n % 35 da euskara; *Gure Mendiak eta Mendiz Mendi* argitalpenetan ia arrastorik ere ez dugu aurkitzen; eta Donostiako *Rimaya*-n % 5 inguru besterik ez da.

**Nolakoa da zuekin mendira jotzen duenaren profila gaur egun?**

**G.A:** Euskarari dagokionez, oso profil euskalduna dugu; gehienak Euskal Herrikoak dira. Adinaren aldetik, gero eta gazte jende gehiago hurbiltzen zaigu,

batez ere ikastaroetara, gero beraiek autonomian eta segurtasunez jarraitzeko. Jarduerari dagokionez, goi-mendian asko lan egiten dugu: korridoreak, ertzak, Alpeetako 4.000koak...

**F.U:** Espedizio eta trekinetara 40 urte-tik gorako jendea apuntatzen da, eta puska handi batean euskalduna. Aurtengo arlo horretan arazoak izango ditugu nazioarteko gatazkengatik, bereziki Estatu Batuen, Israelen eta Iranen arteko tirabirek sortutako segurtasun ezagatik.

**Atzerriko espedizioetan, nola kudeatzen duzue hizkuntza eta bertako komunitateekiko harremana?**

**G.A:** Elkarteko gidari guztiok euskaraz dakigu eta gure artean euskaraz ari-tzen gara. Bezeroei bidaltzen dizkiegun txostenak ere ele bitan ditugu, eta eus-

kaldunei euskaraz bidaltzen dizkiegu.

**F.U:** Asia eta Afrika aldean ingelesa ezinbestekoa dugu; Europan frantsesa ere bai. Baina kanpoan gabiltzanean, gure bertako gidari edo zamalariekin euren hizkuntza propioan gutxieneko harremana mantentzea ezinbestekoa dugu. Gutxitua den zure hizkuntza propioa babestu eta bultzatzen baduzu, gauza bera egin behar duzu urruneko mendietako biztanleen hizkuntzekin ere.

**Zer abantaila dakar gidari euskaldun batekin joateak?**

**G.A:** Gidaria euskaraz aritzeak beste gertutasun bat ematen die aterpean egiten diren elkarriketei. Ordu asko pasatzen ditugu batera, familia txiki bat gara bidaiak irauten duen bitartean. Gainera, kanpoan gaudenean ondoko taldekoei buruzko txisteak egiteko aukera izaten dugu, ulertuko gaituzten beldurrik gabe!

**F.U:** Bada nire mendiko adiskide bat "zer moduz?" galdetuta "etxean baino hobeto!" erantzuten duena. Zure sokalaguna euskalduna baldin bada, euskaraz aritzeak, etxean bezain ondo sentiaraziko zaitu.

**Zeintzuk dira zuen bidelagun nagusiak helburu hauek lortzeko?**

**G.A:** Euskalgintzan, Oxigenoa Euskarari programan Arabako Foru Aldundiak egiten digun ekarpena eskertzekoa da.

**F.U:** Urmuga ekimenean ere Foru Aldundiak, Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak laguntzen digute. Gainontzekoan, ez dugu inolako laguntzarik; ez dakit merezi dugunik ere.

**Nola lortu dezakegu belaunaldi berrientzat natura eta mendizaletasuna, euskaraz, erakargarri izatea?**

**G.A:** Araban gazte elebidunen kopurua % 90ekoa izan arren, aisia eta kirol jardueretan erabilera asko jaisten da. Oxigenoa Euskarari ekimenak euskararen erabilera naturala bultzatzea du helburu, eskola-girotik at. Ekintzak hizkuntzaren "arnasgune" batean garatzen dira, beste hizkuntzen presiorik gabe, eta

testuinguru horretan oxigenoa ematen diote euskarari.

**F.U:** Mendizaletasunak indar handia du Euskal Herrian, baina natura ez dugu asko zaintzen. Egur latza eman diegu mendiei: pista, autobia eta azpiegitura gehiegi ditugu. Kritikak ez dira politikoki zuzenak izango, baina horrela da. Mendi garbi, libre eta ederrak izanez gero, jendea berez hurbilduko da.

**Atzerrian bertako kulturak ezagu-**

**"Aterpera iritsi eta garagardoaren aurrean eseri arte, ez zaitez fida. Mendiak ederrak dira, baina betortz zorrotzak dituzte."**

**tzeko aukera duzue. Ba al dago hizkuntza gutxituen egoeratik ikastekorik?**

**G.A:** Niri beti gustatzen zait joaten naizen tokiko hitzak ikastea. Bertako jendea irrespetua erakusten diozu eta harreman estuagoa sortzen da.

**F.U:** Ezinbestekoa dut joaten naizen tokiko hizkuntzaren gutxienez 50 hitz ikastea. Tamalez, hizkuntza gutxituen aldetik ez dago gauza handirik ikasteko; utzikeria besterik ez dut ikusten xerperaren edo maputxearen egoeran. Mundu osoko arazoa da: estatuetako botere hegemonikoek hizkuntza gutxituak ezabatzeko jarrera dute.

**Masifikazioa eta klima-aldaketa pil-pilean daude. Zer eredu proposatzen duzue turismo jasangarri-gorako?**

**G.A:** Gure lanaren zati bat turismoari lotua dago eta batzuetan zaila da masifikazioa saihestea. Hala ere, oraindik toki lasai pila bat daude. Gure erronka jarduerak horietan garatzea izaten da, bezeroak gudan jarritako konfiantzaz baliatuta.

**F.U:** Mendizaletasuna bidaia da. Uste dut urruneko mendietara joaten zare-

nean, turista baino bidaiaria izan behar duzula. Horrek bertako kultura errespetatzea eskatzen du. Mendiko bide batean "Hello" esan beharrean "Tashi delek", "Namaste" edo "Azul" esateak ateak zabalduko dizkizu beti.

**Segurtasunari dagokionez, zer aholku emango zenikete bere kabuz abentura berri bati ekin nahi dion mendizaleari?**

**G.A:** Segurtasuna bermatzeko, tokia, eguraldia, baldintzak eta kideen gaitasunak ondo ezagutu behar dira aurrez. Esperientziak ematen du hau dena. Aholkua: burua argi izatea, mendia ez gutxiestea, eta ikasteko nahiz autokritika egiteko prest egotea.

**F.U:** Hori da. Garok esaten duena beste era errazago batean esateko: aterpera iritsi eta garagardoaren aurrean eserita izan arte, adi, ez zaitez fida. Mendiak ederrak dira, baina betortz zorrotzak dituzte.

**Mendi irteerak euskaraz egitera errezeloz begiratzen dionari, zer esango zenikete pausoa emateko?**

**F.U:** Batzuetan gure hizkuntza propioa gutxitua balitz bezala tratatzen dugu guk geuk ere, gauza "batzuetarako" soilik erabiliz. Baina edozein hizkuntzak balio du barnean duzuna adierazteko eta 8.000koak igotzeko. Agian erreze-loa baino, utzikeria izango da. Bernardo Atxagaren hitzak moldatuz esan genezake: "Ez dago euskaldun makala baino gauza makalagorik".

**Mende erdiko ibilbidearen ondoren, zein da elkartearen hurrengo erronka nagusia?**

**F.U:** Mendi gidaritzan lanean jarraitzea ahalik eta modu bikainenean, eta euskaraz bizitzea. Maiatzaren 20an Oscar Arroyo nafarrak Everest gailurrera iristea lortu du. Mendiak eta Herriakek prestatu dio espedizioa eta mutila zoriontzea dagokigu. Horrez gain, urte bukaeran *Euskara-Xerpera Hiztegia* kalean izatea espero dugu; gure 50. urteurrena ospatzeko era dotorea izango da.

## BÉRENGÈRE FEARS

### EUSKARA MISIO KARGUDUNA EUSKAL MONETAN

# «Tokiko moneta bat herritik eraikitzen da eta herriarentzat»

EUSKAL MONETA ELKARTEAK BAI EUSKARARI SARIA JASO BERRI DU, ARLO SOZIOEKO-  
NOMIKOAN ETA TOKIKO MERKATARITZAN EUSKARAREN ALDE EGINDAKO LAN ESKER-  
GATIK. EUSKOA, GAUR EGUN EUROPAKO TOKIKO MONETARIK HANDIENA DENA, TRESNA  
EKONOMIKO BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO DA: EUSKARAREN ERABILERARAKO, LURRAL-  
DE-KOHESIORAKO ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO PALANKA BAT. ELKARRIZKETA  
HONETAN, IPAR EUSKAL HERRIKO MERKATARITZAN DUTEN ERAGINA, EGUNGO HIZKUN-  
TZA-ERRONKAK ETA MUGAZ GAINDIKO ETORKIZUNEKO ASMOAK AZTERTU DITUGU.

#### Zorionak Bai Euskarari Sariagatik. Zer esanahi du Euskal Moneta elkar- tearentzat sari hau jasotzeak?

Sari hori eskertzen dugu, hastapenetik euskararen alde Euskal Monetak egiten duen lana argitan ematen baitu, jakinez ez dela erraza euskara ofiziala ez den lurraldean. Tokiko monetaren xedea beti izan da euskara arlo sozioekonomikoan eta tokiko merkataritzan garatzea, eta urtez urte urrats berriak egin ditugu horretarako. Hots, euskarari ikusgarritasun bat ematea bizi publikoan.

Bestalde, barne mailan ere ekintza bereziak eramaten ditugu. Sari honek in-darra ematen digu bide beretik segitzeko, eta espero dugu Ipar Euskal Herriko beste egiturak ere motibatuko dituela euskara haien jarduera profesionalean hedatzen.

#### Ezagutzen ez zaituztenentzat, zer da Euskoa eta zein da Euskal Moneta elkar-tearen funtzioa?

Euskoa Ipar Euskal Herriko tokiko moneta da, eta Euskal Moneta elkar-teak kudeatzen du. Euskoren helburuak hauek dira: tokiko ekonomia birkokatzeari, trantsizio ekologikoari bidea ire-



kitzea, elkar-teak laguntzea eta euskara garatzea arlo sozioekonomikoan.

Euskoa Europako tokiko monetarik handiena da. Gaur egun, 6.000 kide ditu: 1.400 profesional eta 4.600 partikular. 40 bat Herriko Etxe eta Euskal Hirigune Elkargoa ere kide dira. Konkreteki, 1 euro = 1 eusko. Euskoa erabiltzeko elkarteko kide izan behar da, hilabete-kotizazioa ordainduz. Ordaintzeko,

billeteak ditugu (1, 2, 5, 10 eta 20koak) eta numerikoki ordaintzen ahal da ere bai, QR kode baten bidez edo biramenduak eginez.

#### Nola baloratzen duzue orain arteko ibilbidea?

Lehenik, azpimarratzekoa da azken 13 urteetan izan den mobilizazio azkarra euskoaren inguruan. Noski, langileena, baina bereziki ehundaka lagun-

tzaileena. Tokiko moneta bat herritik eraikitzen da eta herriarentzat. Gure kasuan, euskoak egunero saretzen ditu erabiltzaileak, harreman ekonomikoak garatuz. Egunero egiten dugun ekintza arrunt batekin, ordainketarekin, zentzu gehiago eman nahi diogu kontsumoari. Azkenean monetaren boterea herritarren esku izatea da helburu.

### **Euskal Monetaren barne-funtzionamenduan eta lantaldean, nola kudeatzen duzue euskara, Ipar Euskal Herriko testuinguru soziolinguistiko kontuan hartuta?**

Barne-mailan, egunerokoan, euskarari lekua eta lehentasuna ematen entseatzten gara. Baina dugun testuinguru soziolinguistikoarekin ez da erraza. Denok ez gara % 100 euskaldunak, beraz gure artean fite frantsesera lerratzen gara. Dena den, euskaldunen artean, kasik beti euskaraz ari gara eta ikasten ari direnak ahal bezainbat laguntzen entseatzten gara.

Gure barne-dokumentu ofizial guztiak elebidunak dira eta egoitzan diren afixak ere elebidunez ematen ditugu, hizkuntzen arteko oreka hori bermatze aldera. Bestalde, langile guztiak euskara kurtsoak hartzen dituzte Xabi Castorenekin, Ikusi Ta Ikasi enpresatik, hasiberri mailetatik maila trebeagoetaraino. Bi langilek bakarrik ez dituzte klase horiek segitzen, jadanik biek aise egiten dutelako. Ikastaro hauek elkarteak eskaintzen dizkigu, lan-denboraren barnean, eta hori asko eskertzen dugu.

### **Zein da euskararen osasuna gaur egun Ipar Euskal Herriko merkataritzan eta sektore sozioekonomikoan?**

Errango nuke egoera biziki ezberdina dela herrien arabera eta baita enpresa edo saltegi batetik bestera. Gure sarean, adibidez, enpresa anitzetan euskaldunak dira; gutxi gorabehera 500 profesional euskaldun baditugu (1.400 profesionalen artean). Baina era berean, beste komertzio batzuetan, lehen hitzak, "egun on, milesker" erraten ditu-

**"Biharko jendartea bertatik, herrietatik etorriko da. Tokiko alternatibak eraikitzen dituzten lurraldeek hobeki aterako dira."**

zunean, japoniarrez hitz egiten ari bagina bezala begiratzen dizute.

EEPren azken ikerketek diotena agerian gelditzen da gure egunerokoan: arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera ez da aski garatua. Horregatik segitu behar dugu afixaketa elebiduna hedatzen eta saltegiengan euskararen erabilera bultzatzen, espazio berriak irabazteko.

### **Eusko sarean sartzeko, saltokiek eta enpresek euskararen inguruko 'erronkak' hartu behar dituzte nahitaez. Orokorrean, zer jarrera erakusten dute merkatariek erdaldunek baldintza hauen aurrean?**

Afixaketa elebidunari buruz, denetarik bada. Orokorrean, profesional guztiak erroka ongi hartzen dute eta motibazioa erakusten dute. Errealitatean, aldiz, gutxi ezartzen dute afitxatua duten guztia elebidun. Eta hori hainbat arrazoiengatik gertatzen da: leku eskasagatik, informazio gehiegi izateko beldurragatik, haien panelak jadanik inprimatuak direlako, eta dena berriz egiteak diru gehiegi kostatuko bailuke; segur aski, batzuek nahi ez dutelako (nahiz eta nire aitzinean ez diren auzartzen erraten); eta batzuk ez direlako zilegi sentitzen.

Hala ere, badira profesional batzuk ariketa osoki betetzen dutenak, biziki pozik direnak urrats hori emateaz euskararen alde, gure laguntza eskertzen dutenak eta guregana berriro etortzen direnak itzulpen behar berriak dituztelarik.

Euskarazko harrerari dagokionez, zalagoa da hori neurtzea. Guk sareko



profesionalei "lehen hitzak" edo "euskaraz" hitzak ezartzea proposatzen diegu gure pegatinetan, haien euskara mailaren arabera. Horrela, denda batean sartzean eta "euskaraz" ikusten baduzu, badakizu euskaraz aritzen ahal zarela. Gure onlineko aurkitegian ere atzematen ahal da zein enpresa den euskalduna.

### **Zer abantaila edo balio erantsi dakar denda, enpresa edo erakunde batentzat Euskoaren sarean sartzek?**

Sarean izateak eragin zuzena du arlo ekonomikoan zein gizarte mailan:

Irabazi ekonomikoak eta bezero jarraikiak egin: ikerketek erakutsi dutenez, Euskoari esker enpresen emaitza ekonomikoak % 6 eta % 11 artean igotzen dira.

Ikusgarritasuna eta sare-lana: sareko kide izateak ikusgarritasuna ematen du eta lurraldeko beste eragileekin harremanak eta elkarlanak sortzeko bideak irekitzen ditu.

Ekonomiaren birkokatzea: tokiko dinamika sustatzen du. Euskoarekin, dirua lurraldean gelditzen da eta zirkuitu laburrak indartzen dira, ekonomia erreala lagunduz.

Ordainbide alternatibo eta herritarra: Banku sistema klasikotik urruntzeko



pagatzeko molde alternatibo bat da. Proiektu herritar, etiko eta ez-espekulatibo beatea parte hartzea da ere.

Euskarari laguntza: kideak euskararen erabileran lagunduak dira (formazioak, itzulpenak,..). Gainera, sare honi esker, euskaldunak diren enpresak eta elkar-teak errazago identifikatzen eta aurkitzen dira.

**Nola bermatzen duzue Euskoaren segurtasuna eta egonkortasun finantzarioa?**

Lehenik, azpimarratu behar da tokiko monetak Frantziako legedian sartu direla 2014tik. Esparru arautu batean kokatzen da Euskoa. Bestalde, euskoa pentsatua izan da erraza izateko. Ez da kontabilitate bikoitza egin behar eta elkarteari kidetzea aparte ez da gastu gehigarririk. Alderantziz, bezero baten bankoko txartelarekin ordaintzen duela du. Ez da kasua euskoarekin. Segurtasunaren aldetik, biziki kontrolatuak gara eta behar diren neurriak hartuak dira.

**Nola lagundu dezakete euskarak eta Euskoak aberastasuna bertan mantentzen eta lurralde kohesio-tuago bat eraikitzen?**

Aberastasuna lurraldean finkatzea, hori da tokiko monetaren lehen helburua.

Internetetik erosten delarik zerbait, kalte handia egiten zaio lurraldeari: komertzioak hestea, bertako ekoizpenen desagertzea. Supermerkatu erraldoiek ere etekin gutxi berrinbertitzen dute lurraldean berean. Euskoaren apustua denda txikiak lehenestea da, harreman soziala, ahalaz euskaraz. Horrek bai kohesio gehiago dakar gure herriarentzat eta herritarrentzat.

**Erabiltzaileek trukaturako diruaren % 3a beraien aukeraturako tokiko elkarte bati bideratzen zaio. Zer-nolako eragina izan du ekarpen horrek Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileengan?**

Euskalgintzaren eragileetan noski Ikastolak ditugu, baina beste ikasteko egiturak, hedabideak eta gaztetxeak ere baditugu. 2019 eta 2025 artean, gutxi gorabehera 150.000 eusko banatu zaizkie euskararen alde ari diren egoitzetzi (2025ean soilik, 32.828 eusko). Eta oro har, 2013az geroztik, 470.000 eusko banatu zaizkie gure sareko elkarte guztiei.

**"Euskoaren apostua da denda txikiak lehenestea, harreman soziala, ahalaz euskaraz. Horrek bai kohesio gehiago dakar gure herriarentzat."**

**Nola lortzen da Euskoa lehiakorra eta erakargarria izateko testuinguru globalizatu horretan?**

Globalizazioa hor da, kapitalismoa da eredu nagusia. Baina gero eta jende gehiago ohartzen da gure bizimodua ez dela jasangarria. Pandemia garaian kontzientzia hartze azkarra izan zen. Zoritxarrez gauzak ahaztu egiten dira, baina planeta bakarra dugu eta biharko jendartea bertatik, herrietatik etorriko da. Polikrisi testuinguru batean, beren

geroa eskuetan hartu eta tokiko alternatibak eraikitzen dituzten lurraldeak hobeki aterako dira.

**Zer proiektu edo erronka nagusi dituzue gaur egun martxan tokiko moneta indartzeko?**

Lehenik, nahiz eta Europako indartsuenak izan, argi dugu oraindik txikiak gara. Ipar Euskal Herriko biztanleria eta jarduera ekonomikoa. Beraz, gure lehen erronka da herrietan garatzen segitzea. Euskoaren ambizioa ondoko urteetan 10.000 erabiltzailetara iristea izan behar dela uste dugu. Aipa genezake ere laguntzen ari garen esperientzia pilotua tokiko moneta bat eratzeko Oarsoaldean eta Baztanen.

**Ba al dago Hego Euskal Herriko erakundeekin lankidetzarik edo mugaz gaindiko sare sozioekonomiko hori Euskoaren bidez trinkotzeko asmorrik?**

Euskoaren eremua Ipar Euskal Herria bada ere, gure ibilbidean erregularki harremanetan izan gara Hegoaldeko eragileekin. Ongi dakigu mugaz gaindiko harremanak, batzuentzat naziogintza deitzen dutena, bertako eragileekin eta eguneroko esperientziatik etorriko direla. Gaur egun, lankidetzari ekimen zehatzen bidez gorpuzten da: Bai Euskarari Elkartearekin hitzarmena, Euskalgintzaren Kontseiluko kide gara, Bihar proiektua eta Plazara eta EMU-Nekin egin dugun proiektua euskara merkataritzan bultzatzeko.

**Zer mezu edo aholku emango zenioke oraindik ordaintzeko Euskotan egiteari errezeloz begiratzen dion denda, elkarte edo herritar horri?**

Gaur egun trantsizio ekologikoa, laborantza herrikoa eta euskara eztabaidaren erdigunean baldin badira, larrialdi egoerak behartzen gaitu ekintzetara pasatzea. Aterabidea ez da bat eta bakarra. Baina tokiko moneta baliatzea ekimen erraza eta eskuragarria da. Proiektu kolektiboa den heinean, egiten ditugun pauso horiei garrantzia ematen die. Ez beldurtu, saiatu, kide, parte hartu!

JOSU WALIÑO

PUNTUEUS FUNDAZIOAREN ZUZENDARIA

## «Euskal gizarte digital hobe bat eraiki nahi dugu»

PUNTUEUS FUNDAZIOAK HAMARKADA BAT BAINO GEHIAGO DARAMA EUSKARA ETA EUSKAL GIZARTEA MUNDU DIGITALEAN KOKATZEN. BAI EUSKARARI SARIA JASO DU AURTEN BIDE HORRETAN EGINDAKO LAN ESKERGA AITORTZEKO, .EUS DOMEINUAK EUSKAL ERAKUNDEEN ETA ENPRESEN PRESENTZIA DIGITALA INDARTZEKO DUEN BALIOA AZPIMARRATUZ. JOSU WALIÑO PUNTUEUS FUNDAZIOKO ZUZENDARIAK INTERNETEN EUSKARAK DUEN OSASUNAZ, ZIBERSEGURTASUNAZ ETA ADIMEN ARTIFIZIALAZ HITZ EGIN DIGU, BESTEAK BESTE.

**Zorionak Bai Euskarari Sariagatik. Zer esanahi du Puntueus fundazioarentzat euskararen ingurune digitalean egindako lana aitortzen duen sari hau jasotzeak?**

Eskerrik asko! Egindako lanari emandako aitortza guztiak dira garrantzitsuak eta poz handiz hartzen ditugu. Kasu honetan, Bai Euskarari Sariak esanahi berezia du: batetik, Puntueusen eguneroko jarduna balioesten duelako eta, bestetik, .eus domeinuak euskal enpresen presentzia digitala indartzeko duen balioa agerian uzten duelako. Saria bultzada da lanean jarraitzeko.

**Ezagutzen ez zaituztenentzat, zer da Puntueus?**

Puntueusen xedea da .eus domeinua erreferente eta eragile nagusia izatea euskararen lurralde digitalean. Horregatik, gure jardunaren muina domeinuaren kudeaketa, sustapena eta zibersegurtasunaren zaintza dira. Hala ere, gure lana haratago doa: euskal gizarte digital hobe bat eraiki nahi dugu, komunitatea euskaratik kohesionatuz, segurtasuna indartuz eta inklusioa sustatuz. Horregatik, euskararen ekosis-

tema digitala garatzea helburu duten proiektuak jartzen ditugu abian, euskara sarean ikusgarri, baliagarri eta, batez ere, segurua izan dadin.

**Hamarkada bat baino gehiago igaro da .eus domeinua sortu zenetik. Nola baloritzen duzue orain arteko ibilbidea?**

Oso balorazio positiboa egiten dugu, hamabi urte hauetan .eus domeinuaren hazkundea etengabea izan baita sektore guztietan. Berriki argitaratu ditugu CIESen laguntzarekin egindako pertzepzio-azterketaren emaitzak, eta horiek erakusten dute euskal erakundeek eta gizarteak, oro har, domeinuaren ezagutza-maila oso altua dutela eta egiten duten balorazioa bikaina dela. Horrez gain, .eus domeinuak toki nabarmena irabazi du nazioarteko interneteko foroetan, eta gure lana erreferente bihurtu da domeinuen sektorean.

Hala ere, oraindik baditugu sakontzeko eremu garrantzitsuak, lurraldetasunaren ikuspegitik .eus-en presentzia indartzea Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian, esaterako.

**Zein da euskararen osasuna gaur egun sarean?**

Urtero neurtzen dugu euskararen egoera Puntueus Behatokiaren bidez, eta oraintxe argitaratu ditugu azken datuak. Euskal Herriko webguneen % 20ak du euskarazko edukiren bat, datu esanguratsua da, kale-erabileraren parekoa baita. Hala ere, sareak abantaila bat du: edukiak euskaraz argitaratzeko eta kontsumitzeko tresna ugari ditugula, eta horiek hobeto baliatu beharko genituzkeela.

Gizartearen kontzientzia indartzea funtsezkoa da, bai edukiak sortzerakoan, bai tresnak erabiltzerakoan. Euskarak osasun digital ona duela esan dezakegu, adimen artifiziala bezalako eremu aurreratuetan ere presentzia duelako. Baina tresnak izateak ez du balio erabiltzen ez baditugu. Klean bezala, sarean ere euskara erabili behar dugu: gure gailuak euskaraz konfiguratuz eta Interneten euskara komunikazio-hizkuntza nagusi gisa hautatuz.

**Datuetara begira, nolakoa da gaur egun .eus domeinua erregistratzen duenaren profila?**



Puntueus domeinuaren erabiltzaile-profila oso anitza da. Tipologiari begiratuta, era guztietako erakundeak aurki ditzakegu, baina askotan jendea harritu egiten da erabiltzaileen ia erdiak, % 45 inguru, enpresak direla jakitean. Enpresa txikiek presentzia handia dute gurean, baina baita nazioarteko konpainiek ere; horrek erakusten du domeinua eremu guztietara zabaldu dela.

**Bai Euskarari sariak egunerokoa ere aitortzen du. Fundazioaren barne-funtzionamenduan eta lantaldean, nola kudeatzen duzue euskara?**

Puntueus fundazioa euskaraz bizi da: gure egunerokoa lana euskara hutsez egiten dugu lantalde barruan. Egia da gure jarduna eleanitza dela, Interneteko nazioarteko gobernanta foroetan eta erabakiguneetan mugitzen garelako, eta horrek ingelesa erabiltzera behartzen gaituela. Hala ere, barne-kudeaketa guztia euskaraz da. Kanpora begirako komunikazioari dagokionez, lau hizkuntza erabiltzen ditugu: Euskal Herriko hizkuntza ofizialak eta ingelesa.

**"Kalean bezala, sarean ere euskara erabili behar dugu: gure gailuak euskaraz konfiguratuz eta Interneten euskara komunikazio-hizkuntza nagusi gisa hautatuz."**

**Zer abantaila edo balio erantsi dakar erakunde batentzat bere webgunea edo presentzia digitala .eus domeinuaren pean izateak?**

Webgune bat .eus bidez argitaratzeak abantaila nabarmenak dakartza, bai ikuspegi estrategikotik, baita teknikotik ere. Batetik, nortasun digitala dago: domeinu honek gure komunitateari gertutasuna transmititzen dio eta proiektuaren nortasuna euskalduna dela adierazten du.

Bestetik, beste domeinu nagusiek eskaintzen ez dituzten abantaila teknikoak ditu. Zibersegurtasunaren alorrean egiten dugun lana askoz handiagoa da: Puntueusek domeinu guztien

segurtasuna zaindu eta arazoren bat detektatzean, erabiltzailearekin harremanetan jartzen gara konpontzen laguntzeko. Horrez gain, arazo teknikoen aurrean eskaintzen dugun gertutasuna, laguntza teknikoa eta doako zerbitzu digitalak dira gure balio erantsi nagusiak.

**Eten digitala murriztea ere aipatu ohi duzue zuen helburuen artean. Nola lagundu dezakete euskarak eta .eus domeinuak eten hori murrizten?**

Arrakala digitalak murrizteko proiektu estrategikoak ditugu, gizarte-talde ezberdinei zuzenduak. Batetik, Gladys Saria azpimarratuko nuke, proiektu honen bidez emakumeen presentzia eta ikusgarritasuna indartu nahi dugu ingurune digitalean. Bestetik, Gandik proiektua dugu, merkatarien digitalizazioa sustatzen duena lankidetzara eta berrikuntzara uztartuz. Azkenik, Kaixo Mundua egitasmoa dugu gazteen gaitasun digitalak sustatzeko. Proiektu hauen guztien helburua da gizarte-talde guztiek ingurune digitalean euskaraz ari ziteko aukera, tresnak eta trebetasuna izatea.

**Helburuak lortzeko, ezinbestekoa da elkarlana. Zein dira gaur egun zuen bidelagun nagusiak?**

Puntueusek, duen izaeragatik, bidelagun garrantzitsuak ditu bai nazioartean, bai Euskal Herrian ere. Domeinuaren garapenari dagokionez, gure kide nagusiak nazioarteko eragileak dira, izan ere, zibersegurtasunaren eta Interneteko gobernantzaren sektoreko erakundeekin etengabeko harremana dugu. Besteak beste, ICANN, Global Cyber Alliance eta GeoTLD Group bezalako erakundeekin lan egiten dugu domeinuen sektorean .eus indartzeko. Euskal eragileekin dugun elkarlana ere funtsezkoa da, bai erakunde publikoekin lankidetzara (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia edo EITB, esaterako), bai euskal sektore digitaleko eragileekiko aliantza sendoa (Iametzta,

Izarkom, Cybasque, Elhuyar edo Azkue Fundazioa).

**Beste hizkuntza edo kultura komunitate batzuek ere badituzte euren domeinu propioak. Zein harreman duzue haiekin?**

Harreman oso estua dugu gurea bezalako hizkuntza eta kultura komunitateak ordezkatzen dituzten domeinuekin. Elkarrekin GeoTLD Group izeneko taldea osatzen dugu, eta Puntueus talde horretako zuzendaritzan dago gaur egun. Lankidetzatza hau oso aktiboa da, izan ere, ez gara elkarren lehiakide, bide lagun baizik. Elkarrengandik ikasten dugu eta kezka zein proiektu komunak partekatzen ditugu.

Adibidez, gaur egun, domeinu geografiko eta komunitarioen SEO kalitatea (bilatzaileetako posizioa) ebaluatzeko ikerketa-proiektu bat garatzen ari gara elkarrekin. Helburua da maila teknikoan frogatzea *.eus*, *.cat*, *.quebec* edo antzeko domeinuak *.com* edo *.net* bezain eraginkorrak eta fidagarriak direla Interneten. Elkarlan honek babes tekniko eta ordezkaritza ematen digu nazioarteko foroetan.

**Ingurune digitala etengabe aldatzen ari da, eta adimen artifiziala da gaur egungo iraultza nagusia. Zer paper jokatu behar du euskarak testuinguru honetan, eta zer egiten ari da Puntueus erronka horri erantzuteko?**

Adimen artifizialak paradigma aldaketa erabatekoa ekarri du alor guztietan. Zorionez, euskararen kasuan lehen mailako eragileak ditugu, eta horrek AAren olatua garaiz harrapatzeko aukera eman digu. Gainera, OpenAI edo Gemini bezalako tresna nagusiek euskarara maila oso altuan erabiltzen dute, beraz, orain gure esku dago aukera hori modu estrategikoan baliatzea.

Puntueusen kasuan, AAren erabilera praktikoa dugu ardatz. Egunerokoan, zibersegurtasunaren zaintzarako erabiltzen dugu, eta Puntueus Behatokian domeinuen kategorizazioa findu eta



**“Adimen artifizialean oinarritutako tresna berritzaile bat aurkeztuko dugu laster. Euskal ekosistema digitalarentzat mugarri bat izango dela uste dugu.”**

automatizatzeko txertatu dugu. Horrez gain, Elia-ren bidez, doako itzulpen automatikoa eskaintzen diegu *.eus* domeinua duten webguneei.

Hala ere, aurten jauzi kualitatibo bat egingo dugu: adimen artifizialean oinarritutako tresna berritzaile bat aurkeztuko dugu laster. Euskal ekosistema digitalarentzat mugarri bat izango dela uste dugu, baina xehetasun gehiago emateko gutxi falta denez, adi egon beharko duzue.

**Zibersegurtasuna ezinbesteko bihurtu da enpresentzat. Nola bermatzen duzue *.eus* domeinuaren segurtasuna?**

Garrantzi handia ematen diogu zibersegurtasunari, *.eus* komunitatea seguru egotea gure lehentasuneko ardura baita. Horretarako, hiru urratseko estrategia zehatz baten bidez egiten dugu lana: lehenik, prebentzioan zentratzen gara, erakundeentzat babes-tresna

espezifikoa eskainiz *phishing* erasoak eta identitate-usurpazioak ekiditeko; ondoren, monitorizazio lan jarraitua egiten dugu, egunero *.eus* diren webgune guztiak aztertuz tresna bereziki zibererasoak edo *malwarea* garaiz detektatzeko; eta, azkenik, arazoren bat hautematen badugu, zuzenketaren faseari ekiten diogu, erabiltzaileari laguntza tekniko zuzena emanez intzidentzia konpon dezan. Modu honetan, detektatutako kasuen % 100 bideratzea lortzen dugu.

Euskal enpresei emango genien aholkua argia da: zibersegurtasuna ez dela gastu bat, inbertsio estrategikoa baizik. Garrantzitsua da tresna teknikoak izatea, baina baita lantaldea trebatzea eta gertuko bidelagunak izatea ere.

**Zer mezu edo aholku emango zenukete oraindik *.eus* domeinuari errezeloz begiratzen dion enpresa edo erakunde horri pausoa emate-ra animatzeko?**

Internet aldatu egin da, jada gaur egun milatik gora domeinu-luzapen daude eta nortasun digitala marka propioaren bidez espresatzea ingurune digitala ulertzearen eta baliatzearen adierazgarri da. Errezeloa duten horiei esango nieke *.eus*-ek ez diela aterik ixten, nortasuna eta zerbitzua irabaziko dituztela. Beraz, nire gomendioa litzateke probatzea eta urratsak ematen hasteko beldurrik ez izatea.

# Udalerriekin lankidetzan jarraitzen dugu: Astigarragako Udala gehitu da komunitatera

BAI EUSKARARI ELKARTEAK LAN MUNDUAN ETA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO BIDEAN URRATSAK EMATEN JARRAITZEN DU. UDALERRIEKIN ETA TOKIKO ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN ARITZEA EZINBESTEKOA DA GURETZAT, HORI BAITA HERRITARREN EGUNEROKO BIZITZAN HIZKUNTZAREN PRESENTZIA ERROTZEKO MODURIK ERAGINKORRENA.

## Astigarraga, Bai Euskarari sareko kide berria

Euskararen aldeko dinamika partekatu horri bultzada berri bat emanez, Bai Euskarari Elkarateak eta Astigarragako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute.

Akordio honen helburu nagusia da Astigarragako merkataritza eta zerbitzu-estabuzimenduetan Bai Euskarari Ziurtagiriaren hedapena egitea, saltokiei euskara egunerokoan txertatzeko erraztasunak eta aholkularitza eskainiz.

Hori gauzatzeko, ekainaren 1etik aurrera teknikari bat ibiliko da herriko

saltokietan. Haren zeregina izango da komertzioz komertzio joatea, ziurtagiriaren abantailen berri ematea, prozesuaren nondik norakoak azaltzea eta euskararen bidean pausoak eman nahi dituztenei bidelaguntza eskaintzea.

## Euskal Herri osoan

Astigarragako hitzarmen berri hau ez da hutsetik abiatzen, hainbat udalekin daukagun sareari gehitzen zaio. Euskal Herri osoan zehar euskararen kudeaketa hobetzeko lankidetzek indarrean jarraitzen dute honako udalerrietan:

### Arabara:

Gasteiz, Laudio eta Amurrio.

### Bizkaian:

Lekeitio eta Gernika.

### Gipuzkoan:

Lezo, Azpeitia, Zarautz eta, orain, Astigarraga.

### Lapurdin:

Urruña.

### Nafarroan:

Barañain eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatea.

Udalerrien, saltokien eta elkaratearen arteko sare-lan honi esker, erreferente berriak sortzen jarraitzen dugu.



**Koop**  
**mitxelena**  
TAMAINA HANDIKO PIEZEN MEKANIZATUA

 Eziago Industrialdea 21, HERNANI  943 55 25 12 - 16

 info@talleresmitxelena.eus  www.talleresmitxelena.eus

# Entitate berriak

URTEA HASI DENETIK 14 ENTITATE GEHITU DIRA BAI EUSKARARI KOMUNITATERA

## Aldabea Apartamentu Jasangarriak

Gipuzkoa  
Legazpi

**Zerbitzua euskaraz**

## Aupila

Bizkaia  
Zornotza

**Euskararen bidean**

## CanalDirecto

Bizkaia  
Zornotza

**Euskararen bidean**

## Euskal Herriko Ikastolak

### Europar Kooperatiba Elkarteak

Gipuzkoa  
Donostia

**Zerbitzua eta lana euskaraz**

## Euskal Kulturgileen Kidegoa EKKI

Bizkaia  
Bilbo

**Zerbitzua euskaraz**

## FTG - FotoGasteiz

Araba  
Gasteiz

**Zerbitzua euskaraz**

## Gassó Cimne Inergy S.L.

Bizkaia  
Bilbo

**Euskararen bidean**

## Grupo Moyua

Gipuzkoa  
Donostia

**Euskararen bidean**

## Ikas Kultur Elkarte Aisiola

Bizkaia  
Bilbo

**Zerbitzua eta lana euskaraz**

## Irulegiko akanpalekua

Nafarroa Behera  
Baigorri

**Euskararen bidean**

## Mehaka

Nafarroa Behera  
Baigorri

**Zerbitzua eta lana euskaraz**

## Move Branding

Gipuzkoa  
Donostia

**Euskararen bidean**

## Tantai Baso Jabe Kooperatiba, Koop. S.

Araba  
Aramaio

**Zerbitzua euskaraz**

## Urre S.A.

Bizkaia  
Aulestia

**Euskararen bidean**

**Ikusi  
ziurtagiridun  
guztiak  
biltzen dituen  
Euskararen  
Mapa:**



**GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK**

**LEITZARAN**  
grafikak

Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
TF 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)

# Uztailean estreinatuko da ‘Elkarrengandik solasaldiak’ saioaren 6. denboraldia

IRUNE LASA KAZETARIAK AURKEZTUTA, UZTAIL HONETAN ABIATUKO DA ELKARRENGANDIK IKASIZ SOLASALDIEN SEIGARREN DENBORALDIA. AURTENGO EDIZIOAN HIRU ARDATZ NAGUSI IZANGO DIRA HAUSNARKETARAKO OINARRI: EUSKAL KULTURGINTZA, LIDERGOTZA EREDU BERRIAK ETA LANDA EREMUAREN ETORKIZUNA. BIDE HORRETAN, ASKOTARIKO ADITUEK GAUR EGUNGO ERRONKEI, EGITURA BERRIEI ETA ETORKIZUNEN AUKEREI BURUZKO GOGOETA PARTEKATUKO DUTE. JOAN DEN DENBORALDIAN BEZALA, BIDEO ETA PODCAST FORMATUAN ZABALDUKO DIRA SOLASALDIAK.

## Kulturgintza eta euskara

Euskara eta kulturaren arteko ezkontzak zein osasun duen aztertuko dute solasaldi honetan. Mundu globalizatu eta hiperkonektatu batean euskarazko kultura nola indartu, euskal sortzaileek nazioartean duten harrera eta belau-naldi berrien lekua izango dituzte hizpide Leire Vargas idazle eta itzultzaileak, Gotzon Barandiaran euskara eta bere kulturgintzaren langile autonomo eta militanteak eta Irene Larraza Aizpurua Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.

## Lidergotza berriak

Lidergoaren kontzeptu klasikoetatik harago, egungo garai nahasiek eskatzen dituzten eredu berrietan jarriko dute fokua solaskideek. Lidergoa ikuspegi kolektibotik nola landu eta giza ikuspegi zabalarekin lantaldeak nola ahaldu daitezkeen aztertuko dute Aran Erazun Urtzelaieta lidergo bizigarrietako Antolakundeen aholkulariak, Enpresagintza-MIKeko Kultura eta Lidergo Espezializazio Ekipoaren Koordinatzaileak eta Maite Zaitegi Fabrikako ikertzaile eta bideratzaileak.

## Landa eremua


Mundu mailako merkataritza dinami-



kek eta politika ekonomikoek eragin zuzena dute gure baserri eta lurretan. Belaunaldi-erreleboa bermatzeko erronkak, sektorearen errentagarritasuna, eta teknologia nahiz kudeaketa modu berriak dakartzaten aukerak eztabaidatuko dituzte Garikoitz Aiesta Landaolako kide eta Debagaraia Landa Garapen Elkarteko teknikariak eta Josu Etxaniz GUNE Baserritar Elkarteko koordinatzaile eta ingeniari agronomoak.

Ikusi eta entzun solasaldiak:





Urriak 21 • Orona Ideo (Hernani)

**#EnpresareanAzoka2026**

**Gidoia berridazten**

*Zer kontatuko du zure enpresak bihar?*

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)